

1- ENTZUN AURRETIK



1.1. Dentistarenean

 **Irakurri dentistaren aholkuak**

1. *Gozokiak, litxarreriak... gutxitan jan. Eta gogoratu frutak eta barazkiak jatea askoz ere hobea dela gure hortzetarako.*
2. *Ez hartu janari edo edari hotzegiak edo beroegiak.*
3. *Otordu bakoitzaren ondoren, garbitu hortzak.*
4. *Komeni da gutxienez urtean behin Hortz Klinikara joatea.*

 **Bikoteka erantzun galdera honi: Betetzen dituzu aholku hauek? Elkarrekin konparatu.**

1.2. Ahoa zaintzen duzu?

 **Zein dira zure ohiturak?**

<u>Ohiturak</u>	<i>Egunero</i>	<i>Astero</i>	<i>Hilero</i>	<i>Urtean hirutan</i>	<i>Urtean behin</i>
Hortzak zaindu					
Mingaina garbitu					
Eskuila aldatu					
Dentista bisitatu					
Besterik					

 **Elkarrekin konparatu. Eztabaidatu zenbat aldiz joaten zareten dentistarengana.**

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1. Josu eta dentista

   **Erantzun zuzena aukeratu**

Nola portatzen da Josu kontsultan?



- Agindutako guztia betetzen du berehala
- Kostata, baina utzi dio dentistari lanean
- Joan egiten da, ezer egin gabe

Zer pentsatzen du dentistak Josuz?

- Josu egia esaten ari dela
- Beldurtu egin dela
- Laster deituko diola telefonoz



2.2. Josu kontsultan

   **Entzun audioa osorik. Hurrengo ideietatik zein dira 3 gezurrak?**

- Josu zuzenean sartu da dentistaren gelara.
- Normalean hortzak garbitzera doa.
- Urtean hainbat aldiz doa dentistarengana.
- Bazekien kariesa zuela.
- Anestesia pixka bat jarritakoan esan du: “ez dut gehiago behar”.
- Bilera noiz duen esan dio dentistari.
- Beldurra duela aitortu dio dentistari.



 **Adostu erantzuna zure lagunarekin.**

3- ENTZUN ONDOREN

3.1. Hizkuntzari erreparatzen

Beldurra dugunean...

- **-t(z)eko beldurrez egon**
Dentistarengana joateko beldurrez nago.
Dentistarengana joateko beldurra dut.
- **-t(z)eko beldurra izan**
Dentistari beldurra diot.
- **Zerbaiti beldurra izan**
Dentistak beldurra ematen dit.



3.2. Beldurrak airean!

Zeri dio beldur? Erantzun galdera honi. Horretarako berridatzi esaldi hauek aurreko egituraren bat erabiliz. Gero adostu zure ikaskidearekin.

Txakurrak hurbildu eta zaunka hasten direnean, asko beldurtzen naiz.

.....

Igogailuan trabatuta geratzeko beldurra dut beti.

.....

A ze beldurra! Dena ilun-ilun dago.


.....

3.3. Egoera beldurgarriak, baina norentzat!

Egoera askok ematen dute beldurra.
Irakurri zerrenda.

1. Sugeak
2. Altuerak
3. Saguak
4. Armarmak, zomorroak
5. Txakurrak
6. Hegazkinak
7. Trumoiak eta tximistak
8. Autoa gidatzeak
9. Etxean bakarrik egoteak
10. Igogailuak
11. ...



 **Gelakideen artean nork du egoera hauetan beldur. Egin galderak eta osatu taula bat egoera eta gelakideen izenekin.**

- *Iluntasunak beldurra ematen dizu?*
- *Ez, iluntasunak ez. Niri beldurra armarmek ematen didate.*
- *Ba niri armarmek nazka ematen didate.*



Zeri dio beldur?	Nork?